BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2840

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 6koa, Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariarena, Hezkuntza, zeinen bidez Ogasun eta Finantzetako sailburua eskuordetzen baita, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko administrazio-zentroetako posta-zerbitzuak (2013, 2014 eta 2015ekoak) egitearena kontratatzeko.

Aintzat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. atalburuan ezarritakoa, eta lehenengo xedapen gehigarrian dioena, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 172/2013 Dekretuaren 12.d) artikuluan ezarritakoa, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio kudeaketa zentralizatuko eraikinetako kontratazioa egitea, hain zuzen ere, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari izendatu eta erabilpen orokorrekoak diren material edo zerbitzuena.

Era berean, 172/2013 Dekretuko 12.a) artikuluak honako hau ere ematen dio zuzendaritza horri: erosketa zentralizatuko ondasun eta zerbitzuen kontrataziorako prozeduren garapen-proposamena egitea.

Gaur egun, uste da ezen kontratazio zentralizatua dela era hoberena gastu publikoa arrazionalizatzeko eta posta-zerbitzuen kudeaketa hobetzeko.

Goraxeago aipatutako 136/1996 Dekretuaren 19. artikuluaren arabera, kudeaketa zentralizatukoak ez diren eraikinetan ere eskumena gauzatzeko baimena du Baliabide Orokorren Zuzendaritzak. Eskumen horren instrumentalizazioa hitzarmen bidez, administrazio-klausula zehatzen pleguetan aurreikuspen berariazkoak ezarriz, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean jasotako formulen bidez gauzatuko da.

Lehen aipatutako eremuan, era zentralizatuan posta zerbitzuak kontratatzeko bide edo formula egokia hauxe da: azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea) 13.1 artikuluan eskumenak eskuordetzan emateko aurreikusten dena, eta honako hau xedatzen du:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoak ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Horregatik, 172/2013 Dekretuaren 3.2.f) artikuluak Ogasun eta Finantzetako sailburuari kontratazio-arloan ematen dizkion eskumenak aintzat harturik, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari dagokio, bere titularraren bidez, Administrazio Orokorrean indarrean den Araubide Organikoak sailetako kontratazio-organoari emandako eskumenak erabiltzea. Hori ez da eragozpena izango Jaurlaritzaren Kontseiluak zenbatekoa dela-eta dagozkion eskumenak baliatzeko, ezta EAEren Atzerriko Ordezkaritzetako pertsona titularrek kontratazio-arloan dagozkienak baliatzeko ere.

EBAZTEN DUT:

I.– 2013, 2014 eta 2015erako posta-zerbitzuak (2016ra eta 2017ra luza daitezkeenak) kontratatzeko eskumena Ogasun eta Finantzetako sailburuari eskuordetzea.

Haren esku utzitako eskumena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusi eta kontratuari aplikagarriak diren honako gai hauek ere bideratzeko bada:

– Kontratua prestatzea (II. liburukia).

– Kontratua esleitzea (III. liburukia, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioaren eskumenak, aldaketa, iraungitzea, lagapena eta azpikontratazioa, IV. liburukiko I. tituluko I. kapituluan izaera orokorrarekin aurreikusten direnak, eta hornidura-kontratuetarako, IV. liburukiko II. tituluko IV. kapituluan izaera partikularrekin aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburukia, I. titulua, I. kapitulua).

II.– Kontratazio organoari dagozkion gainerako eskumenak eta, bereziki, emandako zerbitzuak gauzatzeari oniritzia emateko eta zerbitzuak ordaintzeko agindua emateko ahalmena eskuordetzaileak izango ditu.

III.– Eskuordetze hau sinatu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 6a.

Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendaria,
AMAIA JAUREGIBERRI GOENAGA.